



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

URTEKO TXOSTENA

Jardueren Memoria · Datu Sozioekonomikoak

2016



Batzar Nagusia

José Antonio Santano Clavero. *Irungo Alkatea.*

Txomin Sagarzazu Anzisar. *Hondarribiko Alkatea.*

Administrazio Kontseilua

Miguel Angel Páez Escamendi. *Presidente.*

Juan Mari Altuna Muñoa. *Presidenteordea.*

Cristina Laborda Albolea. *Batzordekidea.*

Xabier Iridoy Olaizola. *Batzordekidea.*

David Soto Rodríguez. *Batzordekidea.*

Miren Izaskun Sorondo Arzuaga. *Batzordekidea.*

Muriel Larrea Laso. *Batzordekidea.*

María Serrano Olascoaga. *Batzordekidea.*

M. Lore Erriondo Corostola. *Batzordekidea.*

Eva Fernández Tolosa. *Idazkaria.*

Zuzendaritza taldea

Zuzendari Gerentea.

- Eva Fernández Tolosa.

Ekonomia, Ikerketa eta Berrikuntza departamentua.

- Silvia Istillarte Pardo.

Enplegua eta Berrikuntza Sozialeko departamentua.

- Isabel Otxandorena Juanena. *Enplegua eta Prestakuntza.*
- Fernando Paricio Carrión. *Bitartekaritza eta Indusketa.*

Ekintzailatza eta Autoenpleguaren departamentua

- Javier Gómez Benito. *Autoenplegua.*
- Izaskun Iridoy Olaizola. *Ekintzailatza.*

Turismo departamentua.

- Cristina Gutierrez Alonso.

Zerbitzu Orokorretako departamentua.

- Miren Aranburu Garmendia.



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

www.bidasoa-activa.com



SARRERA

DEPARTAMENTUAK

- 01.** Enplegu eta berrikuntza sozialeko departamentua
- 02.** Ekonomia, ikerketa eta berrikuntza departamentua
- 03.** Ekintzailtza eta autoenplegu departamentua
- 04.** Turismo departamentua
- 05.** Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoa

PROIEKTUAK

- 01.** Krea Bidasoa
- 02.** CONNECT Innovation bai! POCTEFA
- 03.** METTA BIDASOA
- 04.** Bidasoa bizirik garapen ekonomikorako plan estrategikoa

BIDASOA BIZIRIK KOPURUTAN

2016KO MUGAZ GAINDIKO URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA

- 01.** Demografia eta gizartea
- 02.** Lan Merkatua
- 03.** Enpresa ehuna
- 04.** Nekazaritza, arrantza eta abere hazkuntza
- 05.** Industria
- 06.** Eraikuntza
- 07.** Merkataritza
- 08.** Turismoa
- 09.** Garraio eta azpiegiturak
- 10.** Zerbitzuak
- 11.** Ekipamenduak

Eskerronak



Bidasoa biziriken, garapen eta bultzada ekonomiko sozialeko Irungo eta Hondarribiko udalen sozietatean, 2016an, laneko zeharkako ardatz izaten jarraitu dute elkarlanak eta berrikuntzak; izan ere horiexek gidatu dute Bidasoa biziriken jarduketa bere politiken eta jardueren diseinuan eta ezarpenean. Jarduerak Irungo eta Hondarribiko udalek emandako kudeaketa-aginduen babesean egin dira.

2016an, nabarmendu daiteke ekonomia garatzeko plan estrategiko bat abian jarri dela sozietateak datozen urteetan aurrera eramango duen ekintza gidatuko duena. Plan estrategiko horrekin batera, gogoeta bat hasi da Bidasoko Garapen Agentziaren jarduera haren emaitzara egokitzeko eta sozietatea osatzen duten giza-baliabideak ere helburu horretara egokitzeko. Bi gogoeta-ekintza horiek modu partizipatiboan garatuko dira Irungo eta Hondarribiko ehun sozioekonomikoarekin eta Bidasoa bizirik osatzen duten pertsonekin.

2016an, Ducoureau eraikina egokitzeko proiektuan lan egin da, Bidasoa bizirikeko bulego guztiak hara lekualdatzeko.

Enpleguaren alorrean, aurten, enpleguaren bi aste egin dira. Jarduera horrekin, Irungo eta Hondarribiko eta inguruko enpresek eskaintzen dituzten enplegu-eskaintzak aurkezten zaizkie gure eskualdeko eskatzaileei. Sendotu egin da, enpleguarekin zerkusia duten entitate eta instituzioekiko kolaborazioa eta enpresa-ehunarekiko harremana, funtsezkoa baita Bidasoko biztanleen enplegugarritasuna hobetzeko helburua lortzeko. Estrategia eta ekintza berritzaileak diseinatu eta sustatu dira, helburutzat hartuta pertsonen posizionamendua hobetzea enplegua bilatzeko prozesuan. Helburu nagusia da lan-munduratzea El Espazion mota askotariko tailerrak abian jarritz.

Enplegurako prestakuntza-ekintzak lan-merkatuan eskaria duten perfil profesioaletara bideratuta daude, eta joera da haietan parte hartu dutenei profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko aukera emango dieten ekintzak egitea; izan ere, ziurtagiri horrek izugarri hobetzen dizkie lan-munduan sartzeko aukerak.

Berrikuntza eta enpresa-kolaborazioa bultzatzea sozietatearen ekintza-zutabeetako bat da, eta horren helburua da eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzea. Aurten, Connect Innovation Bai! proiektua onetsi da. Horrek aukera emango du industria-enpresen eta zerbitzu aurreratuen artean kolaboratzeko eta berritzeko prozesuak bultzatzen jarraitzeko. Berrikuntza enpresa mikro eta txikietara eramatea diagnostiko teknologikoak eginez eta abian jartzen lagunduz egiten da.

Sarrera.

Proiektu europar horrek aukera ematen du kolaborazio-lana sendotzeko l'Agglomeration Sud Pays Basque-rekin, Mondragon Unibertsitatearekin, ESTIA Ingeniari Eskolarekin eta GAIA elektronikako enpresa-elkarterekin.

Bidasoko Hiri Behatokia, Erabat, oinarritzko tresna izan da 2016an gure azterketa sozioekonomikoa egiteko; izan ere, eguneratze integrala egiteko prozesu bati ekin dio, bai edukian bai bere diseinuan.

Ekitaldi honetan, Agentzian funtsezko lan-ardatzaren garapena hasi eta sendotu dugu: ekintzailletza. Ekintzailletza, hasiera-hasierako fasetik; hau da, negozio-ideia berriak bultzatuzetik negozio-plana gauzatzera. Ekintzaileen komunitatea sendotzen jarraitu da; asmoa da ekintzaileen arteko kolaborazioa sendotzea. Ekintzaileen komunitate hau eta bere ideiak bizirik bloga benetako topagunea bihurtu da ekintzaileentzat eta enpresa sortu berrientzat; izan ere, bertan, informazio interesgarria aurkitu dezakete, eta ezagutzak, ideiak eta esperientziak trukatu ere egin dezakete. Komunitate honek enpresa-zentroetan eta cowoeking gunean du isla fisikoa. Azkenik, nabarmendu behar da laguntza-programa bat gauzatu dela enpresa-ekimen berriak mundu digitalera sartzeko, zerbitzu horretatik lagunduta.

Turismoaren alorrean, funtsezko lan-ardatzetako bat da eskualdean sektore horretan jarduten duten eragile publikoen eta pribatuen arteko kolaborazioa sendotzea. Urtetan garatu den lan bateratu horren ondorioz, kalitate turistikoko proiektu lehiakorrek agertu dira, eta produktu turistikoak nahiz gastronomiko, nautiko eta negozioetakoak sortu dira. 2016an, nabarmendu daiteke turismo gastronomikoko zenbait ekintza diseinatu direla.

Interneten dugun posizionamendua ere indartzen jarraitu dugu, Visit Hondarribia Irun plataformaren bidez, gizarte-sareetara estekak sortuta eta helburutzat hartuta bi udalerrietako turismo-bailabideak era berritzailean sustatzea.

Berriz ere 2016an garatutako bi ekimen azpimarratu behar ditugu. Lehenengoa "Krea Bidasoa, ekintzailletza, berrikuntza eta sorkuntza" azokaren zortzigarren edizioa da; izan ere, topagune bat da enpresentzako, ekintzaileentzako eta sortzaileentzako, erakunde publiko zein pribatuentzako, eta baita esperientzia-trukean eta ekintzailletzaren, berrikuntzaren eta sorkuntzaren arloko azken joeren ezagutzan interesatuta dauden beste eragile batzuentzako ere.

Bigarrena Metta Bidasoa elkarte sortzeko laguntza izan da. Elkartearen helburua da finantzatzeko sistema alternatibo bat ematea proiektu edo ekintzaile berriei.

2016ko beste zereginetako bat izan da ekintzak bultzatzen eta garatzen jarraitzea sorkuntza-industriaren inguruan, gorantz doan jarduera-sektore estrategikoa baita.

Sozietateak Irungo eta Hondarribiko udalei ere eman die laguntza teknikoa, POCTEFA 2014-2020 ekimenak kofinantzatutako EDERBIDEA, BIDE BEREZIAK eta CREACITY proiektu onetsiak aurkezteko eta gero kudeatzeko.

Beste bi proiektu aurkeztu dira, eta haietan, bazkide gisa parte hartzen du Bidasoa bizirik, enpleguaren alorrean (Translanekin eta "Aurkitu alnbideak" gunea) eta enpresa-berrikuntzako alorreko beste batean (Digitalia). Era berean, laguntza teknikoa ere eman zaio Irungo Udalari eta Bidasoa Txingudi mugaz gaindiko Partzuergoari, mugaz haraindiko mugikortasuna lantzen duen proiektu bat aurkezteko (Smartmob).

Halaber, laguntza teknikoa eman zaio Irungo Udalari, Europako finantzaketa-programetara aurkezteko bi proiektu prestatzeko. Proiektu bat "Estrategia DUSI" izeneko deialdira aurkeztu zen, eta bestea, UIA ekimenaren deialdira.

Bidasoa pertsonei zerbitzuak emateko enpresen eta profesionalen elkarrekin ere laguntza izaten jarraitu du, elkarte osatzen duten enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta Bidasoa eskualdeko sektore estrategiko hori sendotzeko xedez.

Berriz ere, Bidasoa bizirik parte hartu du Irun Ekintzan - Irungo Udalaren Enpleguaren eta Ekonomia Garapenaren aldeko Itunaren alorrean eta Hondarribia Abian - Hondarribiko Udalaren Enpleguaren eta Ekonomia Garapenaren aldeko Itunaren alorrean egiten diren ekintzak bultzatzen eta garatzen. Bidasoa bizirik, aurten ere, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren jarduketak koordinatu eta garatu ditu.

Eskeratu egin nahi genuke pertsona, enpresa, entitate, erakunde eta prestakuntza-zentro guztien laguntza eta inplikazioa; izan ere, haien laguntzarik gabe ezin izango ziren egin 2016an egin diren jarduera guztiak.



Enplegu
eta berrikuntza
sozialeko
departamentua.

1

Enplegu eta Berrikuntza Sozialeko Departamentuaren jardunak hiru ardatz estrategikotan jarri du arreta: enplegu, prestakuntza eta orientazio jardueretan gurekin elkarlanean aritzen diren entitateekiko tokiko sareen sendotzean; pertsonak erabaki pertsonal eta profesionalak hartzeko prozesuen barruan hobeto kokatzeko ekintza berritzaileen sustapenean; eta eskualdeko enpresa sarearekiko elkarriketa dinamiko eta iraunkorrean sakontzean.

Bidasoa bizirik Enplegu Sistema Publikoko partaidea da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzaile den aldetik, eta, horregatik, gure jarduera guztiek pertsona guztiei lan merkatuan sartzen laguntzea eta horrela lan merkatu bidezkoago bat lortzen laguntzea dute helburu.



1.

El Espazio etorkizuna duten lanbideen jarduerak eta lankidetzak

2016an, 16.200 bisita izan ditu El Espazio etorkizuna duten lanbideen guneak, eta 2.605 zerbitzu eman ditugu pertsonari enplegu eta prestakuntza bidean laguntzeko.

Lan pertsonalizatua egin dugu, eta taldekako jarduerak egin ditugu. Cité des Métiers metodologiari jarraituz eta erreferentetzat pertsonari laguntzeko alor edo poloak izanik: "Bilatu zeure prestakuntza", "Aurkitu zeure lana", "Sortu zeure lana" eta "Bideratu zeure etorkizuna". Aholkularitza pertsonalizatuari dagokionez, 1.307 laguni eman dizkiegu orientazio, informazio eta laguntza zerbitzuak.

Taldekako jarduerari dagokionez, berriz, 128 tailer antolatu ditugu, zeinetan 1.299 lagunek hartu duten parte. Lana bilatzeko tresnen ingurukoak izan da eskaririk handiena: 70 tailer eta 498 parte hartzaile. Era berean, aipatzekoa da langileen nazioarteko mugikortasunari buruzko tailer bat: eskualdeko bigarren hezkuntzako ikastetxeekin elkarlanean antolatu dugu, eta 400 ikasle bakoitzak gehiagok hartu dute parte.

El Espazio gunearen beste ildo bereizgarri bat lankidetzak sarean eraikitzea da, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte entitate eta eragileekin eta ikastetxeekin elkarlanean aritzen da. Alde horretatik, 2016an, hamazazpi tailer antolatu ditugu, baita eskualdeko lanbide heziketari buruzko informazioa emateko jardunaldi bat ere, eta 98 pertsonak hartu dute parte jarduerari horietan: % 40 emakumeak ziren, eta % 60, gizonak; bestalde, % 58 35 urtetik beherakoak ziren, eta % 20, 45 urtetik gorakoak.

Oro har, El Espazio gunearen jardueretan parte hartu dutenen % 56,80 gizonak ziren, eta % 43,20, emakumeak. Adinari dagokionez, berriz, % 48,06 35 urtetik beherakoak ziren; % 23,99, 36 urtetik 45era bitartekoak; eta % 27,95, 45 urtetik gorakoak.

2.

Orientazioa eta Enplegu zentroa

2016ko uztailetik, Orientazio Programa dago abian. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen du, eta Bidasoa bizirik entitate laguntzailea da.

Bigarren seihilekoan, 187 lagunek hartu dute parte banakako prozesuetan –351 zerbitzu eman dizkiegu–, eta 36k taldekako 10 prestakuntza ibilbideetan.

Enplegu Zentroari dagokionez, 2016an, 507 pertsonari eman diegu zerbitzu pertsonalizatua: 3.200 ordu baino gehixeago eman dituzte, 3.060 sarreratan. Era berean, taldekako zortzi tailer antolatu ditugu, eta 35 lagunek hartu dute parte. Bestalde, otsailaren amaieratik aurrera, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak zerbitzua finantzatzen lagundu du.



3.

Lan bitartekaritza eta praktikak

2016an, guztira, 505 lan eskaintza kudeatu ditugu: 689 lanpostu.

Enpleguaren bi aste antolatu ditugu urtean zehar. 2.250 lan eskatzailek hartu dute parte, eta 327 pertsonari lagundu diegu lan elkarriketa bat lortzen. Gainera, 217 lan eskaintza kudeatu ditugu: 289 lanpostu, 92 entitatetan.

Urtean zehar, guztira, 505 lan eskaintzatarako 10.250 hautagaitza kudeatu ditugu, eta 48 hautaketa prozesu eraman ditugu aurrera.

Praktika programei dagokienez, bederatzi lan eskatzailek hartu dute parte, beste horrenbeste enpresatan.

Bestalde, 240 enpresari eman diegu informazioa Lehen Aukera gazteak kontratatzekeo laguntzei buruz, eta 33 kontratazio proiektu tramitatu ditugu: 39 lan kontratu.

Azkenik, lanetik kanpoko bederatzi praktika bideratu ditugu, ostalaritza sektoreko enpresetan, Lanbideren programen bitartez.

4. Indusketa, etengabeko prestakuntza eta kalitatea

Prospekzio bisitak egin ditugu 161 enpresatan, eta 646 harreman sustatu ditugu eskualdeko eta inguruko eskualdeetako enpreekin elkarlanean aritzeko.

Bestalde, enpresei informazioa emateko hiru jardunaldi antolatu ditugu: bata ADEGIk eman du, bere enplegu atariari buruz; beste bat enpresen gizarte erantzukizunari, berdintasunaren kudeaketari eta langileen aniztasunari buruzkoa izan da; eta bestea, Eusko Jaurlaritzak kontratazioari laguntzeko programei buruzkoa.

Azkenik, ISO 9001 ziurtagiria berri du, zeina duela zortzi urtetik dugun.

5. Prestakuntza

2016an, prestakuntza emateko aurrez aurreko hamar jarduera jarri ditugu martxan, non 131 pertsonak hartu duten parte, baita Internet bidezko tutoretzapeko hamaika prestakuntza ikastaro eman ere, non 277 pertsonak hartu duten parte.

Enplegurako prestakuntzari dagokionez, sei ikastaro eman ditugu: guztira, 1.488 orduko prestakuntza teoriko praktikoa eman dugu, eta 87 pertsonak hartu dute parte % 32,2, emakumeak, eta % 67,8, gizonak. Hain zuzen ere, espezialitate hauetako ikastaroak eman ditugu: batetik, sukaldeko oinarrizko lanak (1. maila) eta sukaldaritza (2. maila), zeinak Lanbidek finantzatu dituen, eta, bestetik, orga jasotzaileak gidatzeko ziurtagiria, A2 mailako frantsesa, B2 mailako frantsesa eta eraikuntzako laneko arriskuen prebentzioa (prebentzio baliabideak), zeinak Irun Ekintzan itunak finantzatu dituen.

Bizialdi osoan ikasteko programaren esparruan, berriz, aurrez aurreko lau ikastaro eta Internet bidezko tutoretzapeko hamaika ikastaro eman ditugu: aurrez aurreko 67 orduko prestakuntza eta Internet bidezko 167 orduko prestakuntza. 321 pertsonak hartu dute parte; % 67,9, emakumeak. Bestalde, aipatzekoa da elikagaiak manipulatzeko ikastaroetan 130 lagunek lortu dutela ziurtagiria.

Bestalde, aulaNET – Bidasoa bizirik Internet bidezko prestakuntza emateko plataformak autoprestakuntzako ehun ikastarotik gora proposatu ditu. Alde horretatik, sei ikastaro berri sortu dira, eta 318 matrikula egin, 59 ikastarotan.

Azkenik, 2015ean enplegurako prestakuntza emateko antolatu genituen jardueretako parte hartzaileen laneratzearen jarraipena egin dugu 2016an. Bada, guztira, harremanetan jarri garen pertsonen % 60,8k lortu dute laneratzea: mendetasun egoeran dauden adinekoen laguntzaile pertsonalen % 50ek, sukaldarien % 83,3k eta astialdiko begiraleen % 55,6k.

6. Berrikuntza enpleguan

BidaOsoa elkarte dinamizatzeko zuzeneko laguntza eman dugu. Hain zuzen ere, pertsonentzako zerbitzuak ematen dituzten eskualdeko hamahiru enpresak osatzen dute BidaOsoa.





Economia, ikerketa eta berrikuntza departamentua.

2

Gure lanaren helburua eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzea eta haien garapen gaitasuna sendotzea da, eta, ildo horretatik, 2016an, 4.0 industriako teknologiak enpresa industrial txikietara hurbiltzeko lanean hasi gara.

Era berean, Lortek, Ideko eta Tekniker zentro teknologikoekin batera, adimen lehiakorren gaineko sentsibilizazio proiektu bat gauzatu dugu, eta sormena eta diseinua antolakundeetan sar daitezzen bultzatzen jarraitu. 65 enpresak baino gehiagok hartu dute parte antolatu ditugun jardueretan.

Erabat Bidasaldeko Hiri Behatokia, ohiko jardueretan aritzeaz gain, Behatokiaren beraren web euskarria eguneratzeko lanean hasi da, nola diseinuari hala informazioaren eduki eta tratamenduari dagokienez.

Mugaz gaindiko lurralde arteko lankidetzak proiektuei dagokienez, aipatzekoa da maiatzean CONNECT INNOVATION BAI! proiektua onartu izana POCTEFA 2014-2020 Espainia, Frantzia eta Andorra arteko lurralde arteko lankidetzak programaren esparruan; haren barruan, taldeburua da Bidasoa bizirik.



1. Enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna

1.- Berritzeko laguntza

- Adimen lehiakorraren gaineko sentsibilizazioa: Hogei enpresak hartu dute parte Lortek, Ideko eta Tekniker zentro teknologikoekin batera programatutako jardueretan.
- 4.0 industriako teknologien hurbilketa: SPRI Enpresa Digitalarekin elkarlanean, barnetegi teknologiko bat antolatu dugu, non hamabi enpresak hartu duten parte, eta Bidasoa institutuarekin elkarlanean, Ecosistema3d Bidasoa proiektua abiarazi dugu, non hamalau enpresak hartu duten parte.
- Irunlab Industria: Jarduera artistikoak egin ditugu enpresa industrialetan, antolamendua berritzeko prozesuak abiarazteko. Bost enpresak hartu dute parte.

2.- Nekazaritzako elikagaien industria eta tokiko produktuak: kooperatibak sortzeko sustapena

- Tailer teoriko praktikoak antolatu ditugu, esperientzia berritzaileak bisitatu, eta sektoreko sei proiekturen negozio ideiak aztertu.

3.- Ostegunak interesatu egiten zaizkizu” dibulgazio hitzaldien programaren antolaketa

- Zuzendarien alokairua, enpresaren erantzukizun penala, lokalak irekitzeko eskakizunak eta turismo sektorerako eta txikizkako merkataritzaren sektorerako doako tresnak Interneten: horra gaurko gaiak lantzeko antolatutako lau tailerrak, non 35 pertsonak hartu duten parte.

4.- Artisautzaren eta diseinuaren, txikizkako merkataritzaren eta bertako ekoizleen sektoreen lehiakortasunaren hobekuntza (Hondarribia Abian ekimenaren barruko jarduerak)

- Bertako produktuaren astea (asteko egun guztietarako jarduera programa bat, bertako produktu eta ekoizleen inguruko)
- Hondarribia Craft (merkataritza dinamizatzeko eta artisautza sustatzeko proiektua): Hamar saltokik beren erakusleihoak utzi dituzte, beste horrenbeste artisauk beren lanak erakusteko.
- Eguberrietako I. Azoka: Abenduaren 11n eta 12an, Itsas Etxean, Hondarribiko hamabi saltokik beren produktuak eskaini dituzte, eta entretenimendu jarduerak izan dira.
- Oparideiak Eguberrietako kanpaina: Hemeretzi saltokik hartu dute parte.

5.- Txikizkako merkataritzaren sektorearen, zerbitzu enpresen eta artisten lehiakortasunaren hobekuntza (Irun Ekintzan itunaren barruko jarduerak)

- “Sortzeko momentuaren bila” Irungo zerbitzu eta merkataritza enpresentzako sormen tailerrak: Hamasei enpresak hartu dute parte.
- Artistentzako prestakuntza (sortzaileentzako jardura programaren hirugarren zikloa: aurrekontua eta finantzaketa bideak, proiektuen gauzatzea, 2.0 marketin eta brandinga... nor bere kultur proiektua kudeatzeko beharrezkoa den gutzia): 44 enpresak hartu dute parte.



6.- Mikroenpresa eta enpresa txikiei berrikuntza eta lehiakortasun gaitan laguntzeko zerbitzua

- 180 enpresari egin diegu zerbitzu, banan-banan edo enpresek gure proiektuetan parte hartuta.

7.- Enpresak dinamizatzeko jarduerak

- Enpresa kopurua: 470
- Jarduera kopurua: 37

8.- KREA Bidasoa ekintzailtza, berrikuntza eta sorkuntzaren VIII. Azoka. Maiatzaren 26an izan zen.

2. Erabat, bidasoako Hiri Behatokia

Aurten, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Energia sektoreko balio katearen azterketa
- Irungo merkataritzaren dinamismoari buruzko urteko txostena
- Bidasoko eskualdeko enplegu eta kontratazioari buruzko urteko txostena

Erabat, zenbakitan:

- Enplegu buletinen kopurua: 12
- Kontratazio buletinen kopurua: 12
- Urteko txostenen kopurua: 6
- Erantzundako informazio eskaeren kopurua: 143
- Eskarrieko txostenen kopurua: 21



3. Mugaz gaindiko lurraldeen arteko lankidetzaren proiektuak

Aurten, mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, batez ere, POCTEFA 2014-2020 Espainia, Frantzia eta Andorra arteko lurralde arteko lankidetzaren programaren lehenengo deialdiaren barruan onartutako proiektuak abiarazteko antolaketa administratibo eta teknikoan ahalegindu gara, eta, gainera, indarrean zeuden beste proiektu batzuk koordinatu eta haien jarraipena egin ere egin dugu. Lehenengo deialdiaren barruan, CONNECT INNOVATION BAI! proiektua aurkeztu dugu, taldeburu izanik, eta laguntza tekniko eman diogu Irungo Udalari, bazkide den bi proiektu aurkezteko (IBILBIDE BEREZIAK eta EDERBIDEA), baita Hondarribiko Udalari ere, bazkide den proiektu bat aurkezteko (CREACITY).

CONNECT INNOVATION BAI! proiektuaren helburua da lurraldeko enpresak espezializazio estrategia inteligenteekin konektatzea, laugarren industria iraultzara batzea, ekintzaitza berritzaile eta sortzailearen kultura sustatzea eta herritarrak prozesu horretako partaide izatea, berrikuntzaren eta sorkuntzaren aldeko apustuak identifikatzea dezan Bidasoa – Sud Pays Basque.

Helburu hori lortzen laguntzeko, hainbat lurralde erakunde elkartu gara (Irungo Udala, Bidasoa bizirik eta Hego Lapurdiko Hirigunea), baita goi mailako ikastegiak (Mondragon Unibertsitatea eta ESTIA Ecole Supérieure des Technologies Avancées) eta Gaia Euskal Autonomia Erkidegoko Elektronika eta Informazio Teknologien Industrien Elkarte ere.

Hiru urtez, indarrak batuko ditugu, honako hauek lantzeko:


- Berrikuntza estrategia komun bat
- Ikerketa zentroen eta enpresa txiki eta ertainen arteko konexioa, ikerketa prozesuak merkataritzan aplikatzeko
- Aire zabaleko esperimentazio laborategi baten ezarpena, prototipoak eta garapen teknologikoak probatzeko (Txingudi Lab, Txingudiko badien, Europako mugaz gaindiko lehenengo living lab-aren aitzindaria)
- Ekintzaitza estrategia eta talentua kudeatzeko estrategia baten sorrera, lurraldean sortzen diren enpresa proiektuak lurraldean garatzeko
- Herritarrak, berrikuntza dinamika irekien eta beste interakzio dinamika batzuen bidez gauzatzen ari garen eraldaketa prozesuaren partaide

Azken batean, jauzi egin eta bassin de vie économique izatetik bassin de vie berritzailea izatera igarotzea da kontua.

IBILBIDE BEREZIAK proiektuaren helburua, berriz, hiri sortzaile txiki eta ertainen mugaz gaindiko sare bat sortzea da, eskualdeko hiriburu handien eragin eremuko hiriek eratua, haien identitatea finkatzeko eta haien erakarmena sendotzeko, turismo kulturalaren alorrean elkarlanean aritzeko baterako estrategien bitartez. Irunek, Barakaldok, Sant Just Desvernek, Tournefeuillek eta Foixek osatzen dute sarea, eta, bakoitzaren ezaugarrien arabera, askotariko jarduerak aurreikusi dira: ondareari balioa ematekoak, ibilbide artistiko garaikideak sortzekoak, ekonomia sortzailea sustatzeko eta horrela turismo kulturalaren esparruko produktuak sortzea bultzatzekoak eta sortzaileak biltzeko eta lan egiteko guneak sortzekoak.

Bestalde, **EDERBIDEA** proiektuaren helburua da Gipuzkoak, Nafarroak eta Pirinio Atlantikokoek osatzen duten mugaz gaindiko lurraldean bizikleta bidezko mugikortasun jasagarria garatzea eta sustatzea. Baiona, Donostia eta Iruñea artean Bidasoko eskualdea zeharkatzen duen bide bat egokitzeaz gain, beste neurri batzuk hartzen ditu barnean proiektuak, eguneroko bizitzan bizikleta aisialdirako eta lanerako ibilgailutzat erabiltzea bultzatzeko: sentsibilizazioa, prestakuntza eta informazio euskarrien garapena.

Azkenik, honako hauek dira **CREACITY** proiektuaren ardatzak: batetik, sorkuntza artistikoa eta berrikuntza, Hondarribiak, Baionak eta Iruñeak osatzen duten mugaz gaindiko hiri-eskualdeko ondare gotortuari balioa emateko; eta, bestetik, hiru hiri horien artean lurralde mailako produktu turistiko bat garatzea, turismo kulturala eta negozio turismoa erakartzeko moduan posizionatzeko. Horretarako oinarria lau ildo estrategiko hauek dira: zaharberrikuntza jasagarria, sorkuntza artistikoa, berrikuntza turistikoa eta gastronomiaren sustapena.




Ekintzailletza eta auto-enplegu departamentua.

3

Ekintzailtza eta autoenplegu departamentua sei jarduera ildotan aritu da funtsean:

1. Ekintzaileentzako informazioa eta aholkularitza.
2. Ekintzaileen prestakuntza/gaikuntza.
3. Ekiteko guneen sustapena.
4. Kultura eta espiritu ekintzailearen sustapena.
5. Ekintzailtzaren zabalkundea eta komunikazioa.
6. Proiektu berritzaileen kudeaketa eta garapena:
Metta Bidasoa eta BidaOsoa.



1. Ekintzaileentzako informazioa eta aholkularitza

Ekintzaileentzako informazio eta aholkularitza programen helburua da ezaupideak sortzea eta, haien bidez, ekintzaileek beren gaitasunak areagotzea, enpresa ideia eta proiektuak sortzeko eta, aldi berean, ekintzaileentzaren esparruko tokiko tresna eta politiken eraginkortasuna hobetzen laguntzeko.

Nabarmentzekoak dira negozio planak prestatzeko tresna informatiko propio baten garapena, ekintzaileen esku dauden tresnen hobekuntza eta gaiari buruzko ezaupideen tratamendua eta kudeaketa.

Alde kuantitatibotik, aurrean ere goi mailako lana egin dugu ekintzaileekin: 330 proiektu berriren esparruan eman dugu aholku enpresak sortzeko eta, guztira, 682 lagunek hartu dute parte horrelako proiektuetan (bai berrietan, bai aholkularitza prozesuan lehendik zeudenetan).

Datu horiek diotenez, eskari handia dago informazio eta aholkularitza zerbitzuaren inguruan, eta zerbitzua tresna eraginkorra da negozio ideia bat aztertu nahi duten ekintzaileentzat.

Alegia, finantzaketa bilatzeko aholkularitza, laguntzen eta diru laguntzen kudeaketa eta negozio planak eta merkatu azterketak egiteko laguntza oso harrera ona duten zerbitzuak dira, eta eskari handia dago haien inguruan.



2. Ekintzaileen prestakuntza/gaikuntza

2016 osoan zehar, prestakuntza eta gaikuntza programak abiarazi eta garatu ditugu, ekintzaileen beharretara egokituta, eta ekintzaileek oso harrera ona egin diete. Bereziki, negozioa Interneten ikusarazteko prestakuntza sustatu dugu. Guztira, 55 prestakuntza jardura antolatu ditugu, eta 388 lagunek hartu dute parte.

Informazio jarduerak

- Auto-enpleguari buruzko 11 saio, El Espazio bulegoan, 14 lagunek hartu dute parte.
- LANBIDEk ekiteko ematen dituen laguntzei buruzko informazio emateko hitzaldia. 27 lagunek hartu zuten parte.
- Taldeko hamalau lan saio, LANBIDEk onartutako proiektuetan laguntzeko prozesuaren esparruan. Hemeretzi ekintzaileek hartu zuten parte.
- Kooperatibei buruzko 5 saio, 94 personas lagunek hartu dute parte
- PARTE HARTZAILEAK, GUZTIRA: 154

Ekintzaileentzako prestakuntza jarduerak

- "Ideiatik enpresara" izenburuko hiru tailer, 80na ordukoak, non 37 pertsonak parte hartu duten guztira.
- Lehen sektorearen inguruko negozio ideien sorrari buruzko ikastaro bat, non sei pertsonak hartu duten parte.
- PARTE HARTZAILEAK, GUZTIRA: 43

Enpresak finantzatzeko tailerrak

- Hogei tailer
- PARTE HARTZAILEAK, GUZTIRA: 191

3. Ekiteko guneen sustapena

Ekintzaileen gaitasunak detektatzea eta ekintzaileei laguntzea dira Departamentuaren helbururik nabarmenetako bi, enpresa zentroak eta ekiteko guneak sustatzeaz gain.

Sortu zirenetik, enpresa zentroak oso balio handiko baliabideak dira enpresa berrientzat. 27 lokal daude erabilgarri, eta haien okupazio maila gero eta handiagoa da hasiera batetik –desberdina ere bada batetik bestera–.

Departamentuaren ekintzailtza gelak ere oso harrera ona izan du: ekintzaileek hara jotzen dute beren enpresa proiektuak garatzera –aurten, hamabost proiektu instalatu dituzte bertan–, eta elkarlanean aritzeko eta sarean lan egiteko gune bilakatu da.

Bestalde, 2016an, beste bultzada bat eman diegu ekiteko guneei: Puntalen enpresa zentro berri bat kokatzeko proiektua onartu du Hondarribiko Udalak, eta beste bat proiektatu dute Irunen, Bidasoa bizirik-ek Ducoureau jauregian izango dituen instalazioetan.

Era berean, Irun Factory gune malgu gisa egokitzeko beharrezko pausoak eman ditugu, ekitaldiak eta prestakuntza saioak antolatzeko ez ezik ekintzaileen ekimenak eta sarean lan egiteko ekimenak garatzeko maker gune bat izateko. Ekiteko gune berri horri esker, sormenean eta teknologia digitalaren munduko azken joerek ematen dituzten aukeretan oinarritutako negozio eredu berrien inguruko ekimenak garatzeko bidea ireki dugu.

4. Kultura eta espíritu ekintzailearen sustapena

Arreta berezia jarri dugu ekintzailtza sustatzeko metodologia berriak erabiltzen hasteko, eta, ildo horretatik, berrikuntza metodologikoak egin ditugu, edukiak egokitu, eta tresna eta teknika berriak ezarri, ikasle gazteak negozio eredu berrietara ohitzeko eta ekiteko haien gaitasunak hobetzeko. Horrelako motibazio jarduerak eskualdeko Lanbide Heziketako ikastegietako prestakuntza zikloen barruan antolatu ditugu funtsean, eta, 2016an, 500 bat ikaslek hartu dute parte.

5. Ekintzailtzaileen zabalkundea eta komunikazioa

Ideiak Bizirik blogeko harpideen kopurua gorantz doa etengabe, eta horrek ere gauza bera adierazten du. Hain zuzen ere, blogaren helburua da bere enpresak eta enpresa proiektuak kudeatzeko baliabide eta tresnak jartzea eskualdeko ekintzaileen komunitatearen eskuetan, eta, aurten, 250 artikulua baino gehiago kaleratu ditu, 724 harpiderengana iritsi direnak guztira; hau da, %27ko hazkundea izan da harpideen kopuruan.

6. Proiektu berritzaileen kudeaketa eta garapena: Metta Bidasoa eta BidaOsoa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz finantzaketa tresna alternatibo bat zehazten amaitu, eta Metta Bidasoa elkarte sortu da. Bidasoa bizirik-ek sustatu egin du elkarte, eta enpresa eta ekintzaileek eratu dute, enpresak sortzeko proiektu bideragarriak bermatzeko funts bat edukitzeko.

Bestalde, jardura berrien sustapenaren esparruan, pertsonentzako zerbitzuen sektorea sendotzeko lanean jarraitu dugu, BidaOsoa zerbitzu enpresen elkartearekin elkarlanean. Dagoeneko hamahiru enpresak osatzen dute BidaOsoa.


2016ko jardunaren laburpena

Zerbitzatutako ekintzaileen kopurua	682
Ekintzaileek aurkeztutako negozio proiektu eta ideiak	330
Sortutako enpresak	109
Sortutako lanpostuak	120
Ekintzailtza prozesuetan trebatutako ikasleak	500
Enpresen kudeaketan trebatutako ekintzaileak	43
Informazio jardueretako parte hartzaileak	154
Enpresak finkatzeko jardueretako parte hartzaileak	191
Prestakuntza eta informazio jardueretako parte hartzaileak, Guztira	888

7. Enpresa zentroak

Jarduera berriak kokatu dira enpresa zentroetan, eta Hondarribikoa eta Ficobakoa % 100 okupatu dira, eta Arretxe-Ugaldekoa, % 66. Zaisako zentroari dagokionez, berriz, badira azterketa fasean dauden proiektu batzuk, 2017an zehar gorpuztuko direnak.

Instalaturako enpresak: 15	Lanpostuak: 23
Arretxe Ugalde: 5	8
Puntala Hondarribia: 4	7
Ficoba: 6	8



Turismo departamentua.

4

2016an, lanean jarraitu dugu sektore publikoa eta pribatua elkarlanean aritzeko jardueretan, turismo mahaien, mahai azpisektorialen eta produktuaren garapenaren bidez. Hain zuzen ere, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanerako egitura horiek izan dira buru turismo arloko jardueretan, eta turismoa bultzatzen ari dira, ondarearen eta turismo baliabideen balioa azpimarratzen duen sektore ekonomiko bat den aldetik.

Basquetour agentziaren bitartez, lankidetzak erakunde bat den aldetik, Marketin Planaren barruan produktua lantzeko zehaztutako ildoetan lan egiten jarraitu dugu: surfinga, enogastronomia, euskal kostaldea.


Horretarako, Euskadiko estrategia ildo nagusiak lantzen ari gara, eta, elkarlanean eta koordinatuta, planak ezartzen jarraitzen, eskualdean produktu enogastronomikoa eta surfinga lantzeko sortutako klubetako bazkideen kopurua mantendu eta handituta.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean jarraitu dugu, turismo mahaietan eta turismo plan estrategikoaren garapenean, zeina elkarrekin prestatu dugun.

Eskualdearen posizionamendua hobetzeko lanean jarraitu dugu, sare sozialen bidez. Alde horretatik, urtearen amaieran, 14.301 jarraitzaile genituen Facebooken, eta www.bidasoaturismo.com webgunea eguneratzen jarraitu dugu, landutako proiektu guztiak sartuta.

Irungo eta Hondarribiko Udalek turismoa sustatzeko proposatutako proiektuetan parte hartzen jarraitu dugu.

Eskualdeko turismo sektorearen lehiakortasunari dagokionez, azkenik, jardunbide egokien programetan lan egiten jarraitu dugu, planifikatutako egutegiari jarraituz.



1. Lankidetzak publiko-pribatuko jarduerak.

- Turismo mahaien, mahai azpisektorialen eta produktu klubuen antolaketa eta koordinazioa: surfing produktua lantzeko kluba, produktu enogastronomikoa lantzeko kluba eta produktu nautikoa lantzeko kluba

- Irungo Udalarekin elkarlanean, "Irun Dastatu" eta Irun Berdea produktuen sustapena, Irungo berdeguneetako bideetako seinaleak berrituta eta sustapen euskarriak sortuta Jarduera gastronomikoen antolaketa Dies Oia-sonis jaialdiaren inguruan

- Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sarea, Hondarribiko Udalarekin batera


- Esperientzia enogastronomiko berrien erakarpen eta garapena Hondarribian eta Irunen, eskualdeko hamahiru enpresaren parte hartzeaz

- Ateak zabaltzeko jardunaldi bat eskualdeko sektore nautikoko enpresentzat

2. Turismo informazio zerbitzua.


Bidasoa eskualdeak hiru gune dauzka turismo informaziorako, bi Hondarribian daude eta bat, Irunen. Ondoan islatzen dira bulegoetan bildutako datuak.

Turismo bulegoetan izandako bisitak: 108.031




Turismo bulegoetako bisitarien buruzko datuetatik ondorioztatzen denez, oraindik ere udako sasoa da emankorra, nabarmen, eta abuztuaren etortzen dira bisitari gehien, baina, hala eta guztiz ere, aipatzekoa da goranzko joera dagoela apiriletik urrira bitartean etortzen diren bisitarien kopuruan.

Kontsulta-motak bertan egindakoak 2016



Era berean, www.bidasoaturismo.com turismo departamentuko web atarian eta www.visithondarribiairun.com orrialdean islatzen dira jasotako datuak.

Bizitariak, guztira www.bidasoaturismo.com: 37.993



3. Turismo sektorean lehiakortasuneko jarduerak.

- Jardunbide egokien kalitate programa, eskualdeko 26 establezimenduren parte hartzeaz

- Kalitate ziurtagiriak: Kalitateko Turismoaren Q eta ISO.

4. Informazio, garapen eta sustapen jarduerak.

- Turismoaren sustapena Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Euskal Kostaldeak eta Destinios Euskadi markak antolatutako ekitaldietan, Madrilen, Iruñean, Okzitaniako Tolosan, Donostian, Bilbon, Málaga eta Valladoliden.

- Turismoaren sustapena Ficoban antolatutako jendaurreko lau azokatan.

- Sustapena komunikabideetan, hala nola *Sud Ouest* egunkarian, Iparraldeko merkaturan eragina izateko, Gipuzkoako Kostako lekuekin batera.

- Informazio turistikoa emateko eta turismoa sustatzeko euskarrien argitalpen eta berrargitalpena, eskualde mailako liburuxka eleaniztunak, planoak, gida gastronomikoak, Zerbitzu Nautikoak, pintxoaren gida, Irun Berdea, Esperientzia Gastronomikoak...

- Bisitari eta turisten arreta urte osoan eskualdeko hiru bulegoetan.

- Turismoa sustatzeko materialaren banaketa urtean zehar eskualdean antolatutako kirol eta kultura ekitaldietan.

- Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sarean parte hartzen duten udalerriekiko jardueren koordinazioa Idazkaritza Teknikoa garen aldetik.


- Parte hartzea Gipuzkoako Kostaldea, Euskadiko Euskal Kostaldea eta Destinios Euskadi marketan
- Itourbask Turismo Bulegoen Euskal Sarearen berrikuntza.

5. Lankidetzaren Sareak.

- Hendaia-erriko proiektuen sustapena Mugaz gaindiko Partzuergoaren bidez.

- Idazkaritza Teknikoa eta, ildo horretatik, Erdi Aroko Hirien Sarearen koordinazioa.

- Parte hartzea Europako proiektuetan Bidasoa bizirik-eko beste departamentuekin batera.



